



## **ALKATEAREN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO- OSAGARRIA SOLDATARI LOTZEA**

### **REFLEJAR EN NÓMINA DE LA ALCALDESA EL COMPLEMENTO DE COTIZACIÓN A LA SEGURIDAD SOCIAL**

Osoko Bilkurak 2017ko abenduaren 1ean onartu zuen (Alkatea abstenitu egin da.):

2016. urtean, udalak adostu zuen kargu publikoari ordaintzea Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekin sinatu beharreko hitzarmenaren kostua. Izan ere, beharrezkotzat jotzen du bere gain hartzea alkatearen lanpostuak berezko duen kotizazioaren eta funtzionario-lanpostuari dagokionaren arteko aldea (alkatearen lanpostuari dagokion kotizazioa funtzionario-lanpostuari dagokiona baino txikiagoa da). Udal aurrekontuan 1.800 euroko gastua aurreikusi zen bi soldaten artean dagoen kotizazio-aldea ordaintzeko.

Ezin izan da hitzarmena sinatu, eta proposatzen da urtean 1.800 euroko osagarria oinarrizko soldatan sartzea, legegintzaldia bukatu arte.

Hori guztia ikusirik, Osoko Bilkurak onartu du:

- 1.- Alkatearen soldata gordinari urtean 1.800 euro gehitzea.
- 2.- Erabaki honek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.
- 3.-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

Etxarri Aranatz 2017ko abenduaren 29an  
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar